

TXOSTENA

Puntu ez-seguruen mapa

Santurtzi Hirigintza eta Generoa

SANTURTZI
udala - ayuntamiento



SUSTATZAILEA



TALDE TEKNIKOA



AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak




Murgibe

Consultoría Igualdad

AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
DIAGNOSTIKOA.....	9
MAPA.....	17
JARRAIPENERAKO MAHAIA	36



The background is a solid teal color. Overlaid on this are several white geometric lines that form a series of interconnected squares and rectangles of varying sizes. Some lines are horizontal, some are vertical, and they intersect to create a grid-like pattern. The lines are thin and white, contrasting sharply with the teal background. The overall effect is minimalist and modern.

PUNTU EZ-SEGURUEN MAPA

Sarrera

Emakume eta gizonak ez dugu hiria modu berean bizi. Egungo hiri ereduak, lan produktiboarekin zerikusia duena jartzen du erdigunean, tradizionalak genero maskulinoarekin lotuta egon dena. Hori dela eta, erantzuten al die hiriei bertan bizi diren pertsona guztien beharrei?

Bestelako hiri eredu baten bila, ikuspegi intersektionala txertatzea ezinbestekoa da. Lehenetsiak aldatuz, hiriak guztiontzako bizigarri eta jasangarri bilakatzea.

Horretarako, elkarguneak eta sozializazio-guneak sustatzearen alde egin behar da, eta hiriak ingurubide gisa duen funtzio bakarra baztertu.

Hiriaren eguneroko bizipenean, errabileran, lanaren banaketa sexualaren ondorioz, joan etorrien forma eta maiztasuna, adibidez, desberdinak dira.

Segurtasunari dagokionez ere badira aldeak: hirian emakumeek segurtasun falta gehiago sentitzen dute gizonak baino, batez ere, pasabideetan, aparkalekuetan, autobus-geltokietan, norberaren etxeko sarbideetan...

Emakume asko ez dira seguru sentitzen bakarrik joateagatik, gauez irteteagatik, argiztapen faltagatik, adinagatik...

Segurtasunaren pertzepzioak ari bagara ere, horrek ondorioak ditu pertsonen eta, bereziki, emakumeen mugimendu-askatasunean. Horregatik diogu emakumeek eta gizonak ez dugula hiria modu berean bizi.

Funtsezkoa da hiriak berrikustea eta birpentsatzea, eta aldaketarako neurriak ezartzea.

Neurri horietako batzuk honako hauek izan daitezke: kaleetako argiztapena handitzea, eremu ilunak kentzea, ikuspenera sahiesten duten hesi edo elementuak ezabatzea, parkeetako landaretza zaintzea...

Beste tresna erabilgarri bat hiriko puntu kritikoaren mapa bat sortzea da, puntu bakoitza modu parte-hartzailean identifikatuz eta puntu bakoitzean esku hartzeko neurriak zehaztuz.

AURREKARIAK

Santurtzin 2008an egin zen lehen azterketa, eta, ondoren, 2018an eguneratu zen, puntu ez-seguruen mapa eginez.

2023 lan prozesuan, banan-banan berrikusi dira 2018ko txostenean proposatutako puntuak. Azken bost urteetan burututako lanak jaso dira, eta oraindik egiteko dauden hobekuntzak identifikatu dira ere.

TXOSTENAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Aurreko ikerketa berrikustea, identifikatu ziren puntu kritikoak jarraitu, aldatu edo desagertu diren jakiteko.
- Puntu ez-seguruen mapa eguneratzea.
- Bestelako hiri eredu baten bila jardutea, ikuspegi intersektionala txertatuz.
- Hiriak guztiontzako bizigarri eta jasangarri bilakatzea.
- Emakumeen segurtasunari dagokionez, alderdirik delikatuak ebaluatzea eta identifikatzea.
- Emakumeak parte hartzea eta udalerriko erabakietan parte hartzea bultzatzea eta ahalduz.
- Emakumeak espazio publikoaren erabiltzaile aditu gisa aitortzea.
- Dokumentu tekniko bat egitea, emakumeek identifikatutako guneak eta hauen ezaugarriak mapa batean jasoko dituen, baita horiek hobetzeko proposamen teknikoak ere.

ZEHARKAKO HELBURUAK

HIRI INKLUSIBOA

Hirigintzak nahitaez inklusiboa izan behar da, hirian bizi garen kolektibo guztiei leku egin behar dio eta bakoitzak dituen beharrei erantzun espezifikoak eskeini. Berdin du, haur eta nerabeak izan, adineko herritarrak izan, aniztasun funtzionala eduki ala emakumeak izan. Denak gara herritar eta denak dugu hirian aintzat hartuak izateko eskubidea.

Hirigintza inklusiboa, herria ikusi, aztertu eta proiektatzeko orduan begirada berri bat eskaintzen duen hirigintza eredua da. Ikuspuntua aldatu eta ikuspegiak zabaltzen dituen hirigintza eredua da.

PARTE HARTZEA


Garrantzitsua da planifikazioan herritar guztien parte hartzea sustatu eta bermatzea. Guztion behar eta nahiak proposamen konkretu bihurtzeko.


Hori dela eta, puntu ez-seguruen mapa osatzeko ezinbestekoa da herriko emakumeen inplikazioa.

FEMINISMOA

Feminismoa hiriaren diseinuan aplikatzea, eraikuntza kolektibo bat da, kontraesanak eta ikuspuntu desberdinak dituenak. Horiek, nolabait, espazioaren neutraltasun eza dakarte.

Hiria gizonen genero-rol tradizionalei eusteko antolatuta eta gizonezkoen esperientziak arau gisa hartuta eraiki da beti. Hori horrela, hiriak emakumeen bideak oztopa ditzake eta hiria bizitzeko esperientzia kaltetu dezake. Ezinbestekoa da beraz, ikuspegi feminista hiri planifikazioan txertatzea.



The background is a solid light purple color. On the left side, there are several squares outlined in a thin orange line. These squares are arranged in a staggered, overlapping pattern, creating a sense of depth and structure. The squares vary in size and are positioned at different heights and widths, some overlapping each other.

PUNTU EZ-SEGURUEN MAPA

Diagnostikoa

1. UDAL TEKNIKARIEKIN ELKARRIZKETAK

Udal teknikariek elkarriketak burutu dira, gaiarekiko beraien jakinduria ezagutu eta ekarpenak jasotzeko.

Gai honetan udaleko arlo desberdinak zeresana duten arren, esku-hartze zuzena duten arloekin batu gara.

ELKARRIZKETAK

- **Noiz:**
2023ko otsailaren 13a
2023ko apirilaren 28a
- **Elkarriketatuak:**
Hirigintza eta Ingurumeneko udal teknikariak
Obrak eta Zerbitzuetako udal teknikariak
Berdintasun Zerbitzuko teknikaria
- **Helburua:**
2018ko txostenean atzemandako segurtasun urriko puntuak aztertzea eta azken lau urteetan egindako hobekuntzak ezagutzea.

ELKARRIZKETEN HELBURUAK

- Santurtziko Udalak 2018an puntu ez-seguruei buruz egindako azterlanaren berrikuspena egitea.
- Puntu ez-seguruen mapa eguneratzea.
- Udaleko arloak ezagutu eta proiektu honetan inplikatzeko.
- 2018az geroztik egin diren hobekuntzak identifikatzeko.
- Segurtasun urriko puntu berriak identifikatzeko.
- Datozen urteetan egin beharreko hobekuntzak definitzeko.

ONDORIO NAGUSIAK

- Iluminazioa eta irisgarritasuna dira bereziki Santurtzi herri seguru bat izateko landu beharreko alorrak.
- Udal arloen arteko koordinazioa ezinbestekoa da segurtasun urriko puntuen gainean esku hartu eta osotasunean eragiteko.
- Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioak tokiko arauen proiektuan gehiago sartzea, hala eskatzen badute.
- Beharrezkoa da koordinaziorako eta jarraipenerako espazio bat sortzea zer esana duten udal arloekin batera.

2. GALDETEGIA

Galdetegiak kaleratu dira herritarrek berain esperientzia eta ezagutzatik herriko beste puntu batzuk identifikatu ditzaten eta horrela, prozesuan parte izan daitezten.

Galdetegian hurrengo ezaugarriak aztertu dira segurtasun urriko puntuak identifikatzeko:

- kokapena
- ezaugarriak
- sentzazio pertsonala
- hobetzeko proposamenak

Galdetegian hogeita hamairu pertsonak hartu dute parte eta hainbat puntu identifikatu dira. Hauetako batzuk 2018ko informean daude eta beste puntu batzuk berriak dira.

HELBURUAK

- Herritarren parte hartzea bermatzea.
- Puntu berriak identifikatzea.

Toki bakartia gauez

- Curritoren monumentu alboko zubi gorria
- “La Sardinera” parkea (15.zk 2018)
- Regales Kalea: lehenengo semaforotik San Juan auzoraino doan eremua (14.zk 2018)
- Antonio Alzaga parkea

Toki bakartia egunez

- El Villar: bidegorrira sarbidea

Ikusgarritasun urriko tokiak

- Plaza Señorío de Bizkaia: eskailerak eta aterpeak

Presentzia deserosoa

- Santurtziko Parkea: tren geltoki inguruan (17.zk 2018)
- Mirabueno parkea
- Itsasalde kalea 6

Gordelekuak ditu

- Santa Eulalia kalea 31-35 (16.zk 2018)
- “El Burgo” parkea
- Ranzari parkea
- Santurtziko Parkea: tren geltoki inguruan
- Kueto auzoa. Futbol zelaiko atzealdeko sarrera
- Oyancas kalea (8.zk 2018)
- El Bullón auzoa
- Fleming Doktorea kalea

Iluminazioa urria da

- Santurtziko Parkea: tren geltoki inguruan
- Iparragirre kalea 32
- Pedro Icaza kalea
- Mikel Trueba kiroldegiko irteera
- Gernika Parkea: Casa Torre Jauregira doanbidea
- Ranzari parkea
- Doctor Ferran eta Mendialde kaleak
- Iparragirre etorbidea eta Sardinera parkea
- Fleming Doktorea kalea

Irisgarritasun eskasa

- El Bullón zonaldea
- Simon Bolivar kalea

3. PASEOAK

Ibilbideak 2018an detektatutako puntuak aztertzeko egin dira, Santurtziko emakumeekin.

Deialdi irekiak egin dira Santurtziko emakume oro gonbidatuz eta Kantauri institutuko nerabeekinkontaktu zuzena egin da.

Santurtziren eskala kontuan hartuta, bi ibilbide desberdin osatu dira, puntu guztiak banan banan aztertu ahal izateko.

Aipatutako puntu horiez gain, bidean aurkitzen joan garen beste puntu ez-segurua identifikatu dira.

IBILBIDEA


- **Noiz?:**
2023ko maiatzaren 8a
- **Parte hartzaileak:**
Kantauri institutuko DBH1eko ikasleek osatzen duten Patrulla Morea eta Santurtziko emakume bat.
- **Helburua:**
2018an detektatutako puntuen berrikuspena egitea eta emakumeen hiria nola bizi duten ezagutzea.

HELBURUAK

- Puntu ez-seguruen mapa eguneratzea.
- 2018an identifikatutako puntuak berrikustea.
- Emakumeek hiria nola bizi eta sentitzen duten ezagutzea.
- Emakumeak hiria birpentsatzerako orduan agente aktibo bezala kokatzea.

ONDORIO NAGUSIAK

- 2018an identifikatutako puntu gehienak arazo berberarekin jarraitzen dute.
- Iluminazioa hobetzea gako nagusietakoa da puntu gehienetan.
- Gune batzuk auzoaren birgaitze integrala eskatzen dute, Mamariga auzoak bereziki.
- Egunerokotasunean, mantenu lan egokiak bermatu behar dira.



1º IBILBIDEA

1. San Juan auzora bidea
2. Vista Alegre kalea
3. Grupo Nafarroa Vista Alegre kaletik
4. Vallejo zeharbidea
5. Oyancas kalea
6. Bogadores kalea
7. Mamariga. Parroco Eliaseko eskailerak
8. Ayuntamiento kalea
9. Mamariga. Parroco Eliaseko aldatza
10. Higarillo kalea
11. Juan Iparragirre XXIII kaleko igogailua



3. PASEOAK

Ibilbide osoaren bigarren zatia beste egun batean burutu da, ordu eta erdiko saio batean aztertu gabe gelditu ziren puntuak aztertu dira oraingo honetan.

IBILBIDEA

- **Noiz?:**

2023ko maiatzaren 18a

- **Parte hartzaileak:**

Kantauri institutuko DBH1eko ikasleek osatzen duten Patrulla Morea

- **Helburua:**

2018an detektatutako puntuen berrikuspena egitea eta emakumeek hiria nola bizi duten ezagutzea.

HELBURUAK

- Puntu ez-seguruen mapa eguneratzea
- 2018an identifikatutako puntuak berrikustea
- Emakumeek hiria nola bizi eta sentitzen duten ezagutzea
- Emakumeak hiria birpentsatzerako orduan agente aktibo bezala kokatzea


ONDORIO NAGUSIAK


- Paseo honetan bixitatutako gune gehienetan esku hartu da.
- Argiztapena da arazo nagusia puntu gehienetan, 2019tik hona esku hartze handiak egin diren arren alor honetan.
- Erabilera publikoko gune pribatuetan sortzen dira gune kritiko gehienak.




01 IBILBIDEA

1. Arrantza-portuko kalea
2. Apostoluen Erreginaren parrokiako eskailerak
3. Murrieta Etorbideko eskailerak
4. Santa Eulalia kalea, 29-35
5. Santa Eulalia igogailua
6. Ranzari parkea
7. Lauaxeta kalea, 96
8. Mendi alde kalea





The background is a solid orange color. Overlaid on this are several white geometric shapes, primarily squares and rectangles, some of which are partially cut off by the edges of the frame. These shapes are arranged in a way that suggests a map or a grid. One large square is in the lower-left quadrant, and another is in the upper-right quadrant. There are also several smaller squares and rectangles scattered throughout.

PUNTU EZ-SEGURUEN MAPA

Mapa

PUNTU EZ-SEGURUEN MAPA

Jarraian, 2018an egindako mapan identifikatutako puntuak banan-banan aztertuko dira, jada existitzen ez direnak izan ezik.

Kasu bakoitzean, gunearen deskribapen orokor bat emango da.

2018.urtean planteatutako hobekuntzetatik abiatuta, hauek egin diren ala ez aztertuko da.

Ondoren, datu objektibo zein subjektiboak kontuan hartuz, puntuaren analisi eta balorazio bat osatu da.

Eta azkenik, puntu ez-seguru hauek deuseztatzeko hartu beharreko neurrien proposamen teknikoak bildu dira.

Hainbat hobekuntza eta esku hartze proposatzen dira, prozesu honetan landutako eta osatutako puntu kritikoak desagerrarazteko. Lan hauek esparru ezberdinetatik egin daitezke:

- Hirigintzaren ikuspegitik eginiko esku-hartze eta hobekuntzak: obrak, mantenu lanak, iluminazioa, begetazioa...
- Sentsibilizazioa: herritarrak hiriaren erabileran sentsibilizatzeko, eraso sexistak prebenitzeko eta salatzeke, edo hiri inklusiboago bat lortzeko eta hirian seguruago bizitzeko komunikazio kanpainak
- Espazio publikoaren erabilera eta okupazioa: esku hartze mota hori eragile sozialekin batera auzolanaren bidez eta modu sortzailean puntu ezberdinetan jarduteari dagokio. Puntu horien hobekuntza auzolanaren bidez gara daiteke, adibidez, gizarte eragileek sustatuta, edo Udalak berak sustatuta, eragile horien laguntza eta konplizitatearekin.
- Indarrean dauden araudien aldaketak: prebentzioaren ikuspegitik, udal araudietan aldaketak egitea, esku hartze urbanistikoetan eta eraikuntzetan genero ikuspegia kontuan har dadin, hiri inklusiboago eta seguruago bat sortzeko.

Taula honetan, 2018an identifikatu ziren puntuen gaur egungo egoeraren azterketa bat egin da, hurrengoak identifikatuz:

2018AN IDENTIFIKATU ETA JADA DEUSEZTATU DIREN PUNTUAK Beharrezko lanak egin dira (2018ko azterlanaren 1., 11., 13. eta 15. puntuetan)	4	%22,2
MOLDAKETAK EGIN DIRA BAINA PUNTUA EZ DA DEUSEZTATU 9 puntu horietatik, 5 erabilera publikoko espazio pribatuak dira	9	%50
IDENTIFIKATUTA ZEUDEN BAINA HOBETU EZ DIREN PUNTUAK 5 puntu horietatik, 1 erabilera publikoko espazio pribatua da	5	%27,7

01 MENDI ALDE KALEA [2018ko informean 2. puntua]

Deskribapena

Eskaileradun tramo luzeak daude. Bide bakartiak dira. Badu bide alternatiboa.

Identifikatutako arriskuak


- Ez zaitu inork ikusten, ez entzuten
- Gune bakartia gauez

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- iluminazioa hobetu da, LED farolak jarritz

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAU DI ALDAKETAK
• Ispilu bat jartzea • Iluminazioa hobetzea • Autobus geltokia lekualdatzea	• Kartelak	• Hiri altzariak jartzea transito leku izatetik egoteko leku izatea sustatzeko	• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



02 VALLEJO ZEHARBIDEA [2018ko informean 3. puntua]

Deskribapena

Eskailerak egoera txarrean daude. Ikusgarritasun gutxi dago eta leku bakartia da.

Identifikatutako arriskuak


- Ez zaitu inork ikusten ez entzuten
- Argiztapena jarraitzen du ez egokia izaten

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz
- Urbanizazioa hobetu da

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAU DI ALDAKETAK
• Lorezaintzako mantentze-zerbitzuaren maiztasuna areagotzea		• Bide alternatibo baten erabilera bultzatzea • Mantenu lanak areagotzea	• Genero araudia aplikatzea



03 HIGARILLO KALEA [2018ko informean 4. puntua]

Deskribapena

Maila aldaketa bat ematen da eta irisgarritasuna ez dago bermatuta. Kalearen alde batean, ordea, etxebizitzetarako sarbide zuzenak daude eta bertako mantenua ez da egokia kontsideratzen. Mantenu desegokia duten eremu horiek jabetza pribatukoak dira.

Identifikatutako arriskuak

- Presentzia deserosoa dago
- Gordelekuak ditu
- Argiztapena ez da egokia
- Mantenu lanak ez dira behar bezala burutzen

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Irisgarritasuna hobetu da, malda berriztu da eta orain irisgarria da
- Argiztapena berritzeko lanak abian daude
- HAPOaren arabera, parke bat aurreikusten da eremu honetan.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBEKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
• Horma itsuen ordeztikusgarritasuna bermatzen duten barandak jartzea		• Mantenu lanak areagotzea	• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



04 BOGADORES KALEA [2018ko informean 5. puntuak]

Deskribapena

Ertz ilunak dituen kalea. Gauetan, nolabaiteko segurtasun eza sumatzen da.

Egunean zehar, aurrean dagoen taberna bizirik dago eta horrek segurtasun handiagoa ematen du.

Erabilera publikoko baina jabetza pribatuko espazioa da.

Identifikatutako arriskuak

- Toki bakartia gauez

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz
- Hiri altzariak jarri dira eta hauen mantenu lanak egin dira

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
• Iluminazioa zuhaitzetan dago, hauek fatxadan jarritz gero ikusgarritasuna hobetuko litzateke		• Kalkan sartu aurretik itxitura bat jartzea, bertakoen sarrera soilik bermatuz	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



05 PÁRROCO ELIAS (aldatsa) [2018ko informean 6a puntua]

Deskribapena

Pasabide iluna, estua eta zikina da.

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Egoera berean jarraitzen du

Identifikatutako arriskuak

- Argitaztapena ez da egokia
- Gordelekuak ditu
- Toki bakartia gauez

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
Iluminazioa hobetzea, aldatsean fokalizatuz		- Gordelekuak ekiditeko sarreren itxiturak berraztertu - Mantenu lanak areagotzea	- Atarien ordenantza indarrean jartzea - HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



06 PARROCO ELIAS (eskailerak) [2018ko informean 6b puntua]

Deskribapena

Eskaileren alboan dagoen hormak ikusgarritasuna mugatzen du. Gordelekuak daude eta ezin daiteke eroso korrika atera mehatxatuta sentitzen bazara.

Identifikatutako arriskuak



- Gordelekuak ditu
- Ikusgarritasun urriko tokia da
- Irisgarritasun eskasa du

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAU DI ALDAKETAK
• Iluminazioa hobetzea, eskaileretan fokalizatuz • Ispiluak jartzea	• Sentzibilizazio kartelak	• Bide alternatibo baten erabilera bultzatzea • Gordelekuak ixtea	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • Genero araudia aplikatzea



07 AYUNTAMIENTO KALEA [2018ko informean 7. puntua]

Deskribapena

Egunez asko erabiltzen den gunea izan arren, gauez nahiko iluna eta bakartia da. Autoen sarbideentzako atarietan gordeleku ilun asko sortzen dira.

Identifikatutako arriskuak

- Toki bakartia gauez
- Gordelekuak ditu

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Egoera berean jarraitzen du

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUdi ALDAKETAK
• Iluminazioa hobetzea	• Sentzibilizazio kartelak	• Garajeetarako sarreraren itxiturak berraztertu gordelekuak ekiditeko	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



08 MAMARIGA KALEA [2018ko informean 8. puntua]

Deskribapena

Etxebizitzetara eta kirol instalazioetara joateko bidea iluna da. Erabilera publikoa baina jabetza pribatukoa.

Identifikatutako arriskuak

- Gordelekuak ditu

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUdi ALDAKETAK
• Iluminazioa are gehiago hobetzea • Irisgarritasuna bermatzea • Lorezaintzako mantentze handiagoa		• Hiri altzariak jartzea transito leku izatetik egoteko leku izatea sustatzeko • Mantenu lanak areagotzea	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



09 GRUPO NAFARROA VISTA ALEGRE KALETIK [2018ko informean 9. puntua]

Deskribapena

Gune bakartia da eta ikuspen gutxikoa. Horrez gain, eraikinaren atzealdeko kalea ere puntu kritiko bezala identifikatu da. Kale hori jabetza pribatukoa da baina ez dago itxita. Ez du irteerarik, argitasun urria eta urbanizazio eskasa.

Identifikatutako arriskuak

- Kotxeak hurbil eta astiro pasatzen dira
- Ez zaitu inork ikusten ez entzuten
- Irteera gabeko eremua da

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBEKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAU DI ALDAKETAK
• Ispilu bat jartzea • Iluminazioa hobetzea	• Sentzibilizazio kartelak	• Sarrera ixtea	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



10 VISTA ALEGRE KALEA [2018ko informea 10 puntua]

Deskribapena

Atarirako sarrera da, jabetza pribatuko erabilera publikodun eremua. Eskailerak gordelekuak sortzen dituzte.

Identifikatutako arriskuak

- Gordelekuak ditu
- Ikusgarritasun urriko tokia

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
• Iluminazioa are gehiago hobetzea • Ispiluak jartzea		• Sarrera ixtea	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • Genero araudia aplikatzea



11 SANTA EULALIA IGOGAILUA [2018ko informean 12. puntua]

Deskribapena

Argitasun urriko eremu bakartia da gauez. Eskailerak eremu nahiko iluna dira baina igogailu eta funikularrarekin badauka bide alternatiboa.

Identifikatutako arriskuak



- Argiztapen urria
- Gune bakartia gauez

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Urbanizazioa berriztu da
- Argiztapena berriztu da

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
• Eskaileretako argiztapena hobetzea			• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



12 REGALES KALEA: SEMAFOROTIK SAN JUAN AUZORAKO IBILBIDEA [2018ko informean 14. puntua]

Deskribapena

San Juan auzora joateko bide bakartia da. Bide estua eta gauez iluna. Ikusgarritasun gutxi dago eta ez dago babesa sentiarazi dezakeen espaziorik.

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena hobetu da, LED farolak jarritz
- Urbanizazioa hobetu da
- Promozio berriak eta udal zerbitzuak eraman dira auzora

Identifikatutako arriskuak

- Toki bakartia gauez
- Toki bakartia egunez
- Kotxeak hurbil eta astiro pasatzen dira
- Ez zaitu inork ikusten ez entzuten
- Argiztapena ez da egokia

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETA K
• Ispiluak jartzea • Iluminazioa hobetzea • Autobus geltokia lekualdatzea	• Sentzibilizazio kartelak	• Hiri altzariak jartzea transito leku izatetik egoteko leku izatea sustatzeko • San Juan auzora bide alternatiboa bultzatzea, autobusez • Auzoen arteko lotura landu	• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



13 SANTA EULALIA KALEA 29-35 [2018ko informean 16. puntua]

Deskribapena

Kantauri institutuaren ondoan dagoen kale bat da. Ikasle asko bizi dira eremu honetan, eta etxeetara igotzeko atzeko kaleko plaza bat dago.

Erabilera publikoko eremu pribatu bat da.

Identifikatutako arriskuak

- Gordelekuak ditu

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Auzotarrekin negoziatuz, eremua ixtea aztertzen ari da.

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETA K
• Ispilu bat jartzea • Iluminazioa hobetzea	• Sentsibilizazio kartelak	• Sarrera ixtea	• Atarien ordenantza indarrean jartzea • HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



14 ARRANTZAL PORTUAREN KALEA [2018ko informean 17. puntua]

Deskribapena

Sestao eta Portugaletera joateko bidea da. Gauez leku bakartia da eta aparkatutako autoek gordelekuak sortzen dituzte.

Identifikatutako arriskuak


- Gordelekuak ditu
- Kotxeak hurbil eta astiro pasatzen dira

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Eremu hau aztertzeaz dago.

HOBOKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBOKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPASIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAUDI ALDAKETAK
• Iluminazioa hobetzea		• Mantenu lanak areagotzea	• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean



15 LAUAXETA KALEA 96 [2018ko informean 18. puntua]

Deskribapena

Ikusgarritasun eskasa duen gordelekuz beteriko kalea da. Ez da gehiegi erabiltzen eta behe solairuko lokal gehienak hutsik daude.

Identifikatutako arriskuak


- Presentzia deserosoa
- Argiztapen urria
- Mantenu lan ez egokiak

2018a geroztik egindako hobekuntzak

- Argiztapena berritzeko lanak abian daude

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE ETA HOBKUNTZAK	SENTZIBILIZAZIOA	ESPazio PUBliKOAREN ERABILERA ETA ZERBITZUAK	ARAU DI ALDAKETAK
• Iluminazioa hobetzea		• Udal zerbitzuak bertaratzea, behe solairuak biziberritzeko • Mantenu eta garbitze lanak areagotzea	• HAPOan edo ordenantzan genero araudia aplikatzea, hala dagokionean







PUNTU EZ-SEGURUEN MAPA

Azterketaren jarraipena

JARRAIPENERAKO MAHAIA

Azterketa honen jarraipena egiteko, arloen arteko elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoak dira.

Proiektuaren jarraipena egitea Berdintasun Zerbitzuaren ardura den arren, ezinbestekoa da lankidetzaz izatea Hirigintza eta Ingurumena eta Obra eta Zerbitzuak Arloekin.

Horretarako, Berdintasun Zerbitzuak deituta, urtero ospatuko den kontuak emateko bilera bat egingo da. Bertan hiru sailek hartuko dute parte eta hauek izango dira bilera horren helburuak:

- Txosten honetan identifikatutako puntu ez-seguruetan urtean zehar egindako esku-hartzeen berri ematea.
- Txosten honetan identifikatutako puntu ez-seguruei eragiten dieten hurrengo urtean egin beharreko esku-hartzeen aurreikuspena aurkeztea.
- Lankidetzaz eta konpromisoa indartzea, txosten honetan identifikatutako puntu ez-seguru guztiak ezabatzeko.

